

AYUNTAMIENTO DE PEÑACERRADA/URIZAHARREKO UDALA
UDAL-ARTXIBOKO GIDA



AYUNTAMIENTO DE PEÑACERRADA/URIZAHARREKO UDALA
UDAL-ARTXIBOKO GIDA

AYUNTAMIENTO DE PEÑACERRADA/URIZAHARREKO UDALA
Udal-artxiboko gida

AURKEZPENA

Argitalpen honen helburua artxiboaren historiaren eta zaintzen dituen dokumentu-funtsen informazio zehatza ematean datza. Erabiltzaileek eta bereziki ikertzaileek bere edukietara eta posibilitateetara hurbiltze emankorra posible egiten duen erreminta bezala

Udal-artxiboak lortu nahi duen beste helburu bat, beharbada ez hain ezaguna baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, berriz Udalaren funtsezko oinarrietako bat suposatzen duena, informazioa eta hiritarren eskubideak bermatzea da.

Peñacerrada-Urizaharreko udal-artxiboa antolatutako dokumentu multzoaz osatuta dago udalak berak eginda eta jasotakoak bere kompetentzien jardunean eta kudeaketa administratiboaren, informazioaren, ikerkuntzaren eta kulturaren zerbitzura. Honela, artxiboa bere hiritarren memoria kolektiboa da eta historian zehar gertatu diren transformazioak islatzen ditu.

AYUNTAMIENTO DE PEÑACERRADA/URIZAHARREKO UDALA
UDAL-ARTXIBOKO GIDA

DATU BALIAGARRIAK ETA ZERBITZUAK

HELBIDEA

Peñacerrada-Urizaharreko Udal-Artxiboa Peñacerrada-Urizaharreko
Udaletxeko bigarren solairuan dago:

Helbidea: Plaza Fray Jacinto Martínez 2

Telefonoa: 945367004

Posta elektronikoa: apenacerrada.jesus@ayto.alava.net

Web orria: www.penacerrada-urizaharra.com

ORDUTEGIA

Artxiboak bulego-ordutegian, 9:00etatik 14:00etara, irekita dago.

ZERBITZUAK

Udal-artxiboak Peñacerrada-Urizaharreko Udalak izaki juridiko, politiko eta administratibo bezala historian zehar sortutako, produzitutako eta jasotako dokumentuak biltzen ditu, mantentzen ditu, antolatzen ditu, zaintzen ditu eta hiritarren eskura jartzen ditu. Bere dokumentu-funts nagusia udala da.

Hiritar guztiek zaintzen dituen funtsak libreki lor ditzakete sarbideko eta dokumentu-kontsultako legezko araudia betez:

- Funts-kontsultarako prestatutako aretoa. Telefonoz eta posta arruntaz eta elektronikoz hartzen dira kontsultak
- Dokumentu-erreprodukziarako fotokopiagailua
- Artxiboko langileak aholku-lanak egiten ditu, bai artxiboko dokumentuen gainean bai erabiltzailea beste artxibo batzuetarantz edo erakundeetarantz bideratuz
- Difusio-jarduerak burutzen dira erakusketen, argitalpenen bidez, ikasleentzako bisita gidatuak errazten dira

ARTXIBOAREN HISTORIA

Udal-Artxiboa sortzen duen administrazioa bezain zaharra da. Aspaldi gure errejidoreek Peñacerrada-Urizaharra eta bere biztanleen eskubide, pribilegio eta beharretarako osagarriak diren dokumentuak egokitasunez mantentzeko garrantziaz jabetu ziren. Baiezta dezakegu udal-zerbitzu zaharrenetarikoa bat dela, gaur funtsezkoago diruditen beste zerbitzu batzuen aurrekoa dena.

Peñacerrada-Urizaharreko kontzejua bere jarduera eta funtzionamendua idatzirik uzten hasi zen une hartantxe jaiotzen zen udal-artxiboa. Ez da agertzen nahi kontziente bezala, baizik eta pribilegioak eta salbuespenak, zergen kobratzea, udalbatzak, ondareen jabetzak, errejidore izendapena, erregulazio araua, hiriko antolamendua, populazioaren kontrola, hartzen dituen akordioak, dokumentalki irudikatzen behar diren ondorio natural bezala ...

Udal-artxibo bat hiriaren memoria da. Bere pergaminoen, paperen eta beste edozein euskarraren artean oroipen historiko, baina ere gaur-gaurko mundu bat pilatzen da, eta bere funtsak administrazioaren bide, inoiz, estu eta luzeak leuntzeko balio duen erreminta erabilgarrian bihurtzen dira.

Artxiboaren funtsak XXI mendera arte iritsi dira utzikeriak, lekualdaketak, garbiketak eta gerrak gaituz. Bertan gure historiaren alderik gehienak aurkitzen dira. Horregatik, gure artxiboa da Peñacerrada-Urizaharra bere existentziaren zortzi mende baino gehiagotan zehar sortzen joan den ondare dokumental zabala babesteko balio duen tresna. Peñacerrada-Urizahar guztienak diren ondare kulturalak eta ezagutu beharrekoak.

Ez dugu Peñacerrada-Urizaharreko artxiboko dokumentatutako inongo erreferentzia historikorik.

Gaur udal-artxiboan dagoen dokumenturik zaharrena Peñacerrada-Urizaharra eta Berganzo herriaren arteko auzi bat da, 1592 urtekoa. Era berean, Pipaon herriari 1802. urtean emandako Hiribildu titulu originala gordetzen da.

XVI mendean Errege-erregina Katolikoak artxibo kontuetan legeak egiten hasten dira. 1500eko ekainaren 9an "Real Pragmática" delakoa eman zuten Sevillan non Korrejidoreak Udalbatzako etxeak eta espetxeak eraikitzen behartzen zituzten baita pribilegioak, idazkiak eta legeak jasotzen dituzten liburu-bildumak zaintzeko kutxa bat egitera. Kutxak, gutxienez, hiru giltza izan behar zituen, Korrejidoaren, Errejidorearen eta Udalaren Eskribuaren boterean egongo liritekeenak.

Carlos I. erregearen erregealdian zehar udal-dokumentazioaren erabilera eta kontserbazioari eragiten zioten arau berriak eman ziren. 1530eko uztailaren

AYUNTAMIENTO DE PEÑACERRADA/URIZAHARREKO UDALA
UDAL-ARTXIBOKO GIDA

24an, Valladoliden emandako Errege Zedula batek udalaren liburuetan ez bakarrik Errege Zedulak eta "Provisión" delakoak baizik eta eskriturak eta paperak biltzea agintzen zuen, dokumentu guztiak behar bezala jasota eta inbentariatuta.

Beharbada Errege Zedula honen ondorioz Peñacerrada-Urizaharrak bere artxiboan gordetako paperen inbentarioa egingo zuen baina ez da gaur egunera arte gorde. Gordetzen den artxiboko papereen inbentario lehen liburua 1945 urtekoa da, XX. Mendekoa hain zuzen.

Gure artxiboari buruzko berri gutxi daukagu. Pribilegioen kutxa ez da gaurdaino iritsi. Pasa den XIX. Mendean gertatutako Lehen gerra karlistan udal-dokumentazioaren galeraren gainean ez dokumentatutako erreferentziak iritsi zaizkigu. Garrantzi handia izan zuen Peñacerradako bataila 1838ko ekainaren 22an. Arrazoia hau edo beste bat izanda, historiako dokumentazioa oso eskasa da, paper euskarrian soilik. Forua eta artxiboan pergaminon egon zitekeen bestelako dokumentaziorik ez da gorde.

Udal-artxiboan gordetzen den XIX. Mendea baino lehenagoko dokumentazio historikoa lur-neurketak eta beste herrietatik mugaketak dira gehien bat.

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDAL FUNTSA

Izena: Peñacerrada-Urizaharreko Udal-funtsa
Datak. 1592-2013
Deskribapen maila: Funtsa
Tamaina: 883 normalduko artxibo-kutxa. 98 ml
Euskarria. Papera
Deskribapen-tresnak: Datu-basea (File-Maker)

EDUKIA

Udal-funtsa osatzen duten dokumentuek bere gain hartzen dute 1592ko 2013etara doan kronologia-arkua, nahiz eta gehiengoa garai-garaikidekoak izan. Funtsaren hazkundera etengabekoa da udal-zerbitzu desberdinetatik transferentziak jasotzen ditu aldizka, hori dela eta antolaketako eta deskribapen-tresnen gaurkotzeko prozesua iraunkorra ere bada.

Idazkaritza

- Bilkura-akta liburuak

Udal osoaren akta-liburuak 1848an hasten dira. Saila osorik gordetzen da gaur arte.

- Kintoen espedienteak 1914tik aurrera
- Biztanleen Erroldak 1920tik aurrera.
- XIX. Mendeko bigarren erdialdetik aurrera Udalaren lanak. Haragitegia eraikitzeko baldintza-agiria.
- Zentro eta batzorde asistentzialek sortutako dokumentazioa, 1855ko Udal Karitate Batzarreko akta-liburua.
- Irakaskuntzaren alorrean ikastetxea udalaren mendean zegoen. Instrukzio Publikoaren Toki Batzarraren 1879ko akta-liburua mantentzen da.

Ogasuna

Erregimen Zaharreko ogasun-dokumentaziorik ia ez da existitzen.

Udal-aurrekontua 1823tik aurrera gorde ahal izango zen, agertzen den unean.

AYUNTAMIENTO DE PEÑACERRADA/URIZAHARREKO UDALA
UDAL-ARTXIBOKO GIDA

Udaleko kontu orokorrak 1860tik aurrera gorde dira baita 1879ko lehenengo udal aurrekontua.

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO FUNTS-JUDIZIALA

Izena. Peñacerrada-Urizaharreko FUNTS-Judiziala

Datak. 1843-1965

Deskribapen maila: FUNTSA

Tamaina: 27 normalduko artxibo-kutxa. 3 ml

Euskarria. Papera

Deskribapen-tresnak: Datu-basea (File-Maker)

Botere Judizialaren antolaketaren gaineko behin-behineko Legearen ondorioz Peñacerrada-Urizaharrak Udal-Auzitegia izan zuen.

Geroago, 1960ko hamarkadan, herriko Bake-Epaitegia bihurtzen da.

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALEKO KONTZEJUEK AGIRI-FUNTSAK

- Peñacerrada-Urizaharreko Udala osatzen duten Kontzejuek badute bere agiri-funts propioa.
- Kontzejuen agiri-funtsak bere kontzeju etxeetan daude gordeta.
- Kontzejuen artxiboko funtsak neurri handi batean antolatuta daude. Dugun deskribapen-tresna File-maker formatuko Datu-basea da.
- Esandako funtsen kontsulta Administrazio Batzarreko Presidentearekin adostutako bisiten bidez egin behar da.

AGIRI-FUNTSEN KONTSULTARAKO ERREFERENTZIAK

- www.mcu.es . Espainiako artxiboen atari ofiziala
- www.snae.org Euskadiko artxibo publiko eta pribatuak

AYUNTAMIENTO DE PEÑACERRADA/URIZAHARREKO UDALA
UDAL-ARTXIBOKO GIDA

